



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2011ko URRIAREN 24an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2011ko urriaren 24an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Uxue Etxebeste Eizagirre
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen du: Ainara Sarasola Arsuaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1.Aurreko bilkuretako akten onespena.
2011ko urriaren 4ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2.Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3.Fakturak eta ordainketak.**
- 4.2011 urteko herriko jaietako gastuen kitapenaren onespena, hala bada.**
- 5.Beheburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6.Zihurko Correduria de Seguros-ek eginiko istripu aseguru berriaren azterketa, hala bada.**
- 7.Garaiko etxe baserrian negutegiak, itxitura eta txabola egiteko aurkeztutako dokumentazioaren azterketa, hala bada.**
- 8.2012 urterako Udal Ordenantza fiskalak eta Udal zerbitzuengatik**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala badagokio.

9.Beste batzuk.

10.Erregu, galdera eta mozioak

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2011ko urriaren 4ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

29/2011 Alkatetza Ebazpena, urriaren 19koa," Amañili"- Alkizako emakumeen elkarteari-, 2011ko urriaren 29an arratsaldean, kultur etxeko gela balioanitza erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- ARMERIA EIZMENDI	134,00€
- IZFE	528,64€
- VODAFONE	204,35€
- VODAFONE	75,80€
- MERKAOIL	864,94€
- IHOBE	300,00€
-EBA ERKIZIA	550,96€
-BIDATEK	238,36€
- BIDATEK	238,36€
-IZFE	528,64€
-LARRAITZ FRANCO	418,42€
-IBERDROLA	580,15€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

-ZELAI	190,74€
-SOINUA GARA	1.475,00€
-ERIZ MAGOA	566,50€
-IZFE	1.697,77€
-ARGITU ASESORES	164,26€
-ELECTRICIDAD ZIZURKIL	177,00€
-ELECTRICIDAD ZIZURKIL	164,96€
-TRASPORTES URBIETA	234,85€
-CORREOS	183,64€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.517,34** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA

**2011 URTEKO HERRIKO JAIETAKO GASTUEN KITAPENAREN
ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako herri jaietako gastuen kitapena egin dela ondorengo izanik:

SAGARDO DASTAKETA: 616,00€

-Basoak	282,00€
-Txistorra	250,00€
-Sagardoa	84,00€

BARRIKOTEA: 162,00€

-Sagardoa	134,00€
-Ardoa	28,00€

TXAKOLIN DASTAKETA: 632,04€

-Sardinak	303,99€
-Ogia, ikatza...	328,05€

UMEAK: 1.405,45€

-Opariak	623,10€
-Opariak	106,65€
-Goxokiak	109,70€
-Erik Magoa	566,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

KONTZERTUAK:	4.216,36€
-Eszenarioa	150,00€
-Elektrizitatea-garraioa	411,89€
-Elustondo	600,00€
-Bide Batez	749,00€
-Aitzol	450,00€
-Ekipoa	1.475,00€
-Basoak	380,47€

HERRI KIROLAK	2.834,50€
-Egurra	914,50€
-Kirolariak	1.920,00€

BERTSOLARIAK	1.525,52€
-Bertsolariak	1.100,00€
-Ekipoa	425,52€

JUBILATUAK	1.117,60€
-------------------	------------------

BESTE GASTU BATZUK	1.783,80€
-Kartelak	411,80€
-Sariak	237,00€
-Irratian publizitatea	90,00€
-Suziriak	160,00€
-Painueloak	885,00€

GUZTIRA GASTUAK: 14.293,27€

GUZTIRA SARRERAK: 700,00€

GUZTIRA OROKORRA: 13.593,27€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herriko jaiaren kitapena onestu, guztira 13.593,27 eurotako kostua izan duelarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Alkizako Udalak, herriko jaietako kostuaren kargu egitea. Guztira 13.593,27 euro direlarik.

BOSTGARREN PUNTUA
BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantziatzeko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 400 eurotako diru-laguntza ematea, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 400 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA
ZIHURKO KORREDURIA DE SEGUROS-ek EGINIKO ISTRIPU ASEGURU
BERRIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Legealdi berri honetan, zinegotzien istripu aseguru berriak egin behar direla.

Ikusirik aipaturiko istripu aseguru horiek egiteko Zihurko korreduria de Seguros-ek hiru aurrekontu aurkeztu dituela, ondorengoak izanik: Allianz, Mapfre eta Axa.

Ikusirik aipaturiko hiru aurrekontuen artean, Allianz-ena hoberena dela, bere kostua 1.307,32€ direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Allianz aseguruak aurkezturiko aurrekontua onartzea, Alkizako Udaleko zinegotzi eta Alkatearen istripu aseguruarena, bere kostua 1.307,32 €



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

direlarik.

BIGARRENA: 1.307,32€ gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

GARAICO ETXE BASERRIAN NEGUTEGIAK, ITXITURA ETA TXABOLA EGITEKO AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, M.B. jaunak, Paotxa Kalamu Elkartearen izenean eginiko eskaera, hau da, Garaiko etxe baserrian negutegiak, itxitura eta txabola egiteko baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik, Garaiko etxe baserrian M.B. jaunak negutegiak jarri zituela zegokion baimenik gabe, Udaletxe honek obrak gelditu zizkiola eta hainbat baldintza jarri zizkion baimena eman ahal izateko, ondorengoak izanik:

1.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko baimena.

2.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza edo dagokion departamentuko baimena, negutegiak jartzeko.

3.-Herrizaingoko Saileko ziurtagiri bat non dioen Paotxa Kalamu Elkarteak, oztoporik ez duela izango Garaiko etxe baserrian jartzen dituzten negutegietan cannabisa aldatzeko.

4.-Alkizako Arau Subsidiarioetan eta dagozkien beste arauetan finkatzen diren distantziak errespetatzen direla ziurtatzen diren plano berriak.

Ikusirik, M.B. jaunak, goian aipaturiko dokumentazioen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko txostena aurkeztu duela, eta eskaturiko planoak ere.

Gaia azterturik, Udalbatzak , aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- M.B. jaunari jakinaraztea, Garaiko etxe baserrian negutegiak jartzeko obra baimena eman aurretik, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

1.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza edo dagokion departamentuko baimena, negutegiak jartzeko.

2.-Herrizaingoko Saileko ziurtagiri bat non dioen Paotxa Kalamu Elkarteak, oztoporik ez duela izango Garaiko etxe baserrian jartzen dituzten



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

negutegietan cannabisa aldatzeko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri M. B. jaunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2012 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2012 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, Ogasun eta Kontu Orokorrren Batzorde Informatiboak egindako ondorengo proposamena.

- ZERGAK

- ***Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.***

Tarifak mantentzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,198a.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,198a.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,89a.

Hobariak mantentzea proposatzen da:

-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako.

-Obra berriko higiezinak edo urbanizazio prozesuan daudenak % 50.

- ***Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.***

Tarifak mantentzea proposatzen da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 1,65ean mantentzea.

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.**

1,51ko koefizientea aplikatzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. 1,51

A)Turismoak: Euroak

9 zaldi fiskal bitartekoak.....	27,23
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak.....	54,45
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak.....	102,17
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak.....	127,05
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak.....	163,35
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	199,65

B)Autobusak:

21 plaza bitartekoak	125,78
21 - 50 plaza bitartekoak.....	179,15
50 plazatik gorakoak	223,93

C)Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria.....	63,84
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	125,78
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.....	179,15
9.999 kg-tik gorako k.e.....	223,93

D)Traktoreak:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

16 zaldi fiskal bitartekoak.....	26,68
16 – 25 zaldi f. bitartekoak.....	41,93
25 zaldi fiskaletik gorakoak.....	125,78

E)Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria.....	26,68
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	41,93
2.999 kg.tik gorako karga e.....	125,78

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak.....	6,67
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak.....	6,67
Motozikletak 125 - 250 z.k. Bitartek.....	11,43
Motozikletak 250 - 500 z.k. Bitartek.....	22,88
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. Bitartek.....	45,74
Motozikletak 1.000 cctik gora.....	91,48

1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Ondorengo tarifak eta hobariak mantentzea proposatzen da.

- Nekazaritza-Abeltzaintzako explotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetazko kostoaren	% 2,5
- Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostoaren	% 2,5
Besteak:	% 5,00

HOBARIAK:

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarria eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obraren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udala Planeamenduko AA.SS.etakoa katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

- a)1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6
- b)10 urte artekoa % 3,4
- c)15 urte artekoa % 3,1
- d)20 urte artekoa % 2,9

Karga tasa: % 5,80a igotzea proposatzen da.

2. TASAK

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza.

2.1.1. Ur horniketa.

Tarifen modifikazioan burututako proposamena ondorengo da:

- Etxeko erabilerako ur hornidura:

- * Gutxienerako 45 m3 10,70 euro.
- *Seihilabeteko 45 m3 gutxieneratik aurrera: 0,33euro.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura:
 - * Gutxieneko 90m3 27,95 euro.
 - * Sei hilabeteko 90 m3 gutxienekotik aurrera: 0,40 euro.
 - Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:
 - *M3 bakoitza 0,75 euro.
 - Mantenimendu kuota 9,00 euro sei hilabeteko
 - Ondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa) Ur erreziboaren % 33,00a
- Hobariak: Ikus I. Eranskina

2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua

Tarifen modifikazioan burututako proposamena ondorengoa da:

Etxez-etxeko bilketa, hileko.....13,5 euro
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko..... 25,00 euro

HOBARIAK: Ikus I. Eranskina.

2.1.3. Dokumentu administratiboaren igorpena:

Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

* Jarduera baimenak:	225euro.
* Animalia arriskutxuen inskripzioa:	19,80 euro.
* Hirigintz kontsultak:	37,70 eurotik 60,00 eurora.
* Segregazio baimenak.	37,70 eurotik 60,00 eurora.
* Lehen erabilera baimenak	37,70 eurotik 60,00 eurora.

2.1.4.- Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera privatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatik tasa.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Tarifak mantentzea proposatu da.

2.1.5.- Hilerriko zerbitzuengatikoa tasa.

Ondorengo tasa igotzea proposatu da:

- Lurperatze tasa: 125,00 eurotik 150,00 eurora.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2011ko urriaren 18an egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Ogasun eta Kontu Orokorretako Batzorde Informatiboaren proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2012 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

LAUGARRENA.- 2012 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2012 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

- 1.- HOBARI ESKAERA:-2011 urteko abenduaren 1etik 31arte.
-Gizarte ongizate zerbitzuak proposaturikoak: 2012ko Ekainaren 1etik 30era.

- 2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2012 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 2 arte.

3.- URA TASA:

2012 urteko irailaren 3tik azaroaren 3a bitartean.
2013 urteko otsailaren 1etik apirilaren 1a bitartean.

4.- ZABOREEN TASA:

2012 urteko uztailaren 1etik irailaren 3a bitartean.
2013 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 5a bitartean.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

9.1. ALKIZAKO AMALUR ETXEAREN TEILATUAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO BAIMENA ESKAERA.

Ikusirik I.U.U. jaunak eginiko eskaera, non Amalur etxearen teilatuan eguzki plakak jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak 2011ko urriaren 21ean eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO AMALUR ETXEAREN TEILATUAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

I.U.U. jaunak, Amalur etxearen teilatuan eguzki energiako 2 plaka jartzeko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Amalur etxearen ur bero sanitarioko instalazioa berotzeko, 2,40m² azalera duten 2 eguzki plaka jarri nahi dira ekialdeko teilatuan. Eguzki plaken instalazioaren aurrekontua BEZ-a gabe 1.695,28€koa da.

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikulua arabera, egun dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik daudela ulertzen da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Amalur etxea Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrien kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera etxeak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako araudian ez dira honelako instalazioak debekatzen eta eguzki plakak etxearen instalazioen hobekuntza bat izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.U.U. jaunak eskaturiko obra baimena ematea, hau da, Alkizako Amalur etxearen teilatuan eguzki plakak jartzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

. 9.2. ALKIZAKO ANTZIETA BASERRIAREN PABILOI BATEN ATOI-KARABANAK GORDETZEKO JARDUERA ETA IREKITZE BAIMENA.

Ikusirik A.J.R.E. andreak eginiko eskaera, hau da, Alkizako Antzieta baserriaren pabiloi baten atoi-karabanak gordetzeko jarduera eta irekitze baimena eskatzen zuena.

Ikusirik, Antzieta baserriaren inguruko bizilagunei 10 eguneko epea eman zaiela jarduera honen kontra dagozkien alegazioak tartekatzeko, epe horretan ez direlarik inolako alegaziorik egon.

Ikusirik, 2011ko urriaren 24ean, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ANTZIETA BASERRIAREN PABILOI BATEN ATOI-KARABANAK GORDETZEKO JARDUERA ETA IREKITZE BAIMENARI



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BURUZKO TXOSTENA

A.J.R.E. andreak, Antzieta baserriaren lurretan dagoen pabiloian atoi-karabanak gordetzeko irekitze baimena eskatzen du. 2011-eko urriaren 17-an, instalazioen hirigintza-ikuskapena egin ondoren, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Egindako lanak, baimena eskatzerakoan aurkeztu zuen “atoi-karabanak gordetzeko jarduera proiektuari” egokitzen direnez, zuzena izango da aipatutako baimena ematea.

Su-arrisku garai bat duen establezimendu baten aurrean gaudela kontutan izanik, jarduera proiektuaren baso sute arriskuari loturiko 10º puntua bete beharko da modu iraunkor batean

10.-RIESGO DE FUEGO FORESTAL

...Por ser un establecimiento industrial de riesgo ALTO-6 y cercano a una ladera vegetal, mantiene una distancia de 25m de anchura permanentemente libre de vegetación baja y arbustiva con la masa forestal esclarecida y las ramas bajas podadas.”

Gaia azterturik, Udalbatzak , aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- A.J.R.E. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Antzieta baserriaren pabiloi batean atoi-karabanak gordetzeko jarduera eta irekitze baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ondoren Udal honetara Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa eta Castejón-Muruarteko (Nafarroa) linea lotzeko 400 kV-ko linea elektrikoa ezartzeko Tentsio-Altuko linearen kontrako mozioa aurkeztzen da, osoko bilkuran eztabaidatu eta onartu dezan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Arrazoiaren azalpena

2011ko abuztuan, Espainiako Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren mendeko Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko zuzendari nagusiaren komunikazio bat jaso zuten azterketaren eremuan dauden udalek, ondorengo gaiaren inguruan: «20110173LIE proiektuaren, Deikaztelu izeneko 400/220 Kv-ko azpiestazioa eta harekin lotutako 400 kV-ko lineak (Iruñea) izenekoaren, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren gaineko kontsultaren erantzuna».

Jasotako dokumentazioak erreferentzia egiten dio Red Eléctrica de España, SAK 400 kV-ko linea bat eraikitzeko proiektuari. Horren helburua Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa Deikaztelun (Nafarroa) eraikiko den 400/220 kV-koarekin lotzea da eta Deikaztelukoa Castejón-Muruarteko L/400 kV-koarekin. Aztertzen ari diren lotura berriak egiteko, 400 kV-ko bi linea ezarri beharko liriteke. Guztira, 120 km-ko luzera izango dute, eta, horrez gain, 6 hako azpiestazio elektriko bat eraikiko litzateke.

Proiektu honek Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatzeko du. Izan ere, proiektu hori bertan behera geratu zen, 274. Estatuko Aldizkari Ofizialaren, 2010eko azaroaren 12koaren, arabera, ingurumenen zuten eraginarengatik eta herritarrak proiektuaren aurka agertu zirelako.

Lehen proiektua bertan behera gelditzea eta herritarrak aurka agertzea eragin zuten arrazoiak berberak dira orain, edo agian larriagoak.

Linea berriaren ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira: 42/46 metroko dorreak, 400/500 metroko tartean jarrita, eta 4 oinako hormigoizko oinarriak dituztenak, beren artean 5,90 eta 10,14 metro arteko tartea dagoela. Debehatuta dago linearen inguruan zuhaitzak landatzea eta eraikinak eta industria instalazioak altxatzea.

Ingurumen eta paisaiarekiko eragina ez da onargarria, hasierako dokumentuan proposatutako ibilbide guztiek babestutako espazioei eragiten baitiete gutxi asko, Natura 2000 Sareari barne. Labur esanda, lineak eragina izango luke hainbat legedik –Europakoa, estatukoa, foru erkidegokoa edo autonomia erkidegokoa– babestutako berrogeita hamar bat eremutan. Zehatz-mehatz, aurreikusitako 19 zatietatik 17k babestutako espazio edo espezieei eragingo liekete, eta kontuan hartutako 69 alternatibetatik batek ere ez ditu betetzen gutxienezko baldintzak ingurumenaren ikuspegitik.

Gauza bera gertatzen da eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginarekin: linea egiteko aurrekusten den ezein alternatibak ez ditu betetzen Europako Batasunak arretaren izenean aholkatzen dituen distantzien irizpideak. 19 zatietatik 14 herri batetik 500 m-ra baino gutxiagora daude; hain



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

zuzen ere, Nafarroa eta Gipuzkoako 43 herriri eragiten die horrek. Egoera zatiz zati aztertzen badugu, hasierako dokumentuan aurreikusitako 69 alternatibak kontuan hartuta, konturatzen gara ez dela posible ezein korridorerik aintzat hartzea. Izan ere, haietan guztietan herriak daude segurtasuneko distantziaren barruan.

Horrez gain, erantsi beharko genuke informazio gutxiegi dagoela lineak hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioen inguruan, hala nola, ingurune sozioekonomikoan, turismoan eta aisialdiko eremuetan, ondarean edota lineak zeharkatzen dituen erkidegoen legedietan planteatzen den lurralde ereduarekiko bateragarritasunean.

Proiektu honek eragin negatiboa izango luke Nafarroako zein Gipuzkoako lurraldearen zati handi batean, hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioengatik: paisaian, ingurumenean, herritarren osasunean, ekoizpen sarean edo lehen sektorean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, ahobatez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

1.- Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa eta Castejón-Muruarteko (Nafarroa) linea lotzeko 400 kV-ko linea elektrikoa ezartzeko proiektuaren aurka agertzea, baita proiektuan aurreikusitako azpiestazio berriaren aurka ere.

2.- Red Eléctrica de España, SArek hasierako dokumentuan aurreikusitako korridore guztien aurka dagoela azaltzea, eta interes kolektiboaren ikuspegitik tentsio altuko linea horrek ez duela justifikazio nahikorik salatzea.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari eskatzea proiektuaren aurka ager daitezela, ez baita onargarria paisaiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, herritar guztientzako funtsezko eremuei eragiten die eta.

4.- Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari erabaki hau igortzea eta hedabideen bitartez zabaltzea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)